



# PLITVICE

aintziren parkea







ALAITZ LETE/ ©ESKUBIDE BATZUK ERRESERBATUTA ① ©

URAK BESTE INON EZ BEZALAKO  
ESMERALDA-KOLOREA hartzen du  
Plitviceko Parke Nazionalan,  
Kroaziako Lika eskualdean.  
Aintzirak, ur-jauziak eta iturburuak  
tartekatzen dira, ikuskizun ezin  
ederragoa eskaintzeko.

Parkeak 30.000 hektareako azalera  
du; haietatik 22.000 basoa dira,  
eta gainerako 8.000 hektareak ura.  
Altuera desberdinetan dauden  
16 aintzira, ur-jauzien bidez lotuta.  
Guztira, 92 ur-jauzi.



ALAITZ LETE/ ©ESKUBIDE BATZUK ERRESERBATUTA ① ©





Urak trabertinoan zulatutako presa naturalak dira aintzirak. Trabertinoa kareharri-mota berezi bat da, leun-leuna. Kareharri-mota hori ur karstikoetan sortzen da, mikroorganismoen, algen eta goroldioaren eraginez urak disolbatuta duen karea pilatzen denean.

Zurezko bidezidorrei esker, bisitariak ur-jauzietara hurbiltzeko aukera dute. Bide horiek, gainera, aintziren lehengaia babesteko balio dute, trabertinoa erraz hondatzen baita zapalduz gero.

Jende gehiena udan joaten da Plitvicera, urtarorik lehorrenean. Hala ere, beti aurkitzen dute ura, aintzirak inguratzen dituzten mendietan urtze-aldia motela baina etenik gabekoa delako. Baina toki hau ikusgarria da neguan ere. Gehienetan, elurrak inguru osoa estaltzen du, eta ur-jauzi txikiak izoztu giten dira. ●



© PIOTR PALACKI/123RF



© ZORAN JAGROVIC/123RF



ALAITZ LETE/ © ESKUBIDE BATZUK ERRESERBATUTA © ©